

**2011KO UZTAILAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zortzia.

**HILABETEA:** Uztaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortzietan.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- OBRAK KONTRATATZEA.** Bide asfaltaketa.

2011ko uztailaren 19an, Zerbitzu, Landa Ingurunea eta Ingurumena batzordeak horrela proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Bide-asfaltaketa lanak, publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea, horretarako baldintza plegu administratiboa eta teknikoa onartuz. Litzitazio prezioa, 87.620,06 €koa da (BEZ kanpo). Adjudikazio irizpidea, prezio baxuarena izango da eta egikaritze epea berriz, 3 astekoa zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik zenbatuta hamabost eguneko epearen barruan egin beharko da.

Litzitazio prezioan parte hartzeko, hiru enpresa hauei gonbidapena bidaliko zaie: ASFALTOS URRETXU, GUIPASA eta COPRISA. Eskaintzak aurkezteko epea, 2011ko abuztuaren 26a izango da.

**2.- KONTRATUAK LUZATZEA:**

- Ludoteken eta gaztelekuaren zerbitzu-kudeaketan kontratua luzatzea.

2011ko maiatzaren 16an, Gazteriako batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Berritsu eta Txelotxe ludoteka eta Eizu gazteleku zerbitzua emateko, AISIHEZI AISIALDI ELKARTEAren, Beasaingo Udalak duen kontratua luzatzea. Iraupena, 2011ko irailetik 2012ko ekainera bitarte izango da.

**Bigarren.** Beasaingo Udalak, AISIHEZI AISIALDI ELKARTEAri aipaturako zerbitzua emateagatik egun ordaintzen dion kopuruari, KPI aplikatuko dio.

Egun ordaintzen zaion prezioa ondorengoa da:

Berritsu ludoteka: 32.294,34 € / 1672 ordu: 19,31 €/orduko.

Txelotxe ludoteka: 31.421,52 € / 1632 ordu: 19,25 €/orduko.

Gazteleku: 23.566,14 € / 1220 ordu: 19,31 €/orduko.

**Hirugarren.** Beste estipulazioak ez dira aldatzen eta horren ondorioz, indarrean jarraitzen dute.”

- Bizigune programa burutzeko kontratuaren luzapena.

Ezagutzera eman da, AYTASAren 2009ko martxoaren 12ko datarekin sinaturako hitzarmena, BIZIGUNE programa aurrera eramateko. Halaber jakinarazi da 2010eko azaroaren 12an Gobernu Batzordeak erabaki zuela, 2011ko martxoaren 12rarte, kontratua luzatzea. Orain proposatzen da, kontratua beste urte betez luzatzea eta horretarako AYTASAk orain arte egindako kudeaketen berri eman du, adieraziz, egindako diligentzi, izandako kontsulta, aurkeztutako kexa eta emandako informazioa kontutan izanda, 670 ekintza izan direla. Hobetu beharreko xehetasunen artean, teknikoek egin beharreko etxebizitzaren ikuskapena bizkortzearena dela aipatu da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritziz hauek azaldu dituzte:

Josi Insausti Mujika jaunaren (H1) iritziz, AYTASARI errekeritu egin beharke litzaioke, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko etxebizitzaren ikuskapena premiamenduarekin egiteko eta hori bete ezin daitekeenean arrazoiak zeintzuk diren adierazteko, Bizigune programan sartu nahi duten etxebizitzaren jabeen informatu ahal izateko.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no estamos a favor de prorrogar el contrato con AYTASA para materializar el programa de BIZIGUNE. Aunque en los últimos meses ha habido cierto impulso con el tema de revitalización de la calle Arana, el que esta empresa se encargue de ciertas gestiones del programa de BIZIGUNE, parece que sirve de justificación para su mantenimiento, cuando lo cierto es que no se ha incrementado el nivel de alquiler de las viviendas vacías. Creemos que quienes estén dispuestos a

arrendar sus viviendas a través del programa BIZIGUNE, lo pueden hacer acudiendo a ALOKABIDE.

BIZIGUNE programa aurrera eramateko, AYTASArekin sinatutako kontratua luzatzeari buruzko bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (BILDU, EAJ, H1 eta ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Bizigune programan sartu ahal izateko, “ABOGADOS Y TECNICOS ASOCIADOS, S.A.rekin” (AYTASA) Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak atzitzeko zerbitzua emateko sinatutako hitzarmena, 2012ko martxoaren 12arte luzatzea, 2011ko martxoaren 12ko atzeraeraginekin. Zerbitzu horren bidez lan hauek prestatzen dira:

- Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak jabeen eta interesatuei Bizigune programak eta etxebizitzak izan behar dituzten ezaugarrien berri ematea.
- Jabeen aholkatzea etxebizitzak VISESari lagatzeko baldintzei buruz eta ordainetan jasoko dutenari buruz.
- Interesatuek VISESarekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea.
- Bizigune programari buruzko informazioa ematea.

**Bigarren.** Zerbitzua, 2009ko martxoaren 12an sinatutako kontratuan ezarritako baldintza berdinetan emango da.

**Hirugarren.** AYTASari errekeritzea, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko etxebizitzak ikuskapena premiamenduarekin egiteko eta hori bete ezin daitekeenean arrazoiak zeintzuk diren adierazteko, Bizigune programan sartu nahi duten etxebizitzak jabeen informatu ahal izateko.”

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, goizeko zortziak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.